**2024KO UZTAILAREN 22AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**MODUA**: Presentzialki

**TOKIA**: Batzar aretoa

**EGUNA**: Hogeita bia

**HILABETEA**: Uztaila.

**URTEA**: Bi mila eta hogeita lau.

**HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko bostak eta erdi

**BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa

**DEIALDIA**: Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Sei (6)

**MAHAIBURUA**: Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

**BILDUAK**: Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)

Mariola Pascual Paredes (EAJ-PNV)

Hasier Agirre Elkoroberezibar (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Wesley Aritz Corsitto Agirre (ELKARREKIN PODEMOS EZKER ANITZA / IU-ALIANZA VERDE).

**IDAZKARIA**: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

**1.- AURREKO AKTAK**. 2024-06-06ko eta 2024-07-04 akten onespena.

Aipatutako akten berri eman ondoren, aho batez onartu dira, berarekiko zer esanik ez dagoelako.

**2- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK**:

a.- Kontratazioa:

- GIZARTE ETA HEZKUNTZA-ARLOAN ETA ARLO PSIKOSOZIALEAN ESKU-HARTZE ZERBITZUARI BURUZKO KONTRATU LUZATZEA. 2021BIBO0007

Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

I.- 2021-05-27. Gobernu Batzordeak egindako bileran, Beasaingo udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psiko-sozialean eskuhartze zerbitzua, prozedura irekia eta erregulazio harmonizatuaren bidez kontratatzeko deialdi publikoa egitea erabakitzen da eta horretarako dagozkion baldintza plegu administratibo eta teknikoak onartu dira.

II.- 2021-09-28. Asociación Lorratz Elkartearekin kontratua sinatzen da. Egikaritze epea 2 urtekoa da, 2021-10-1etik aurrera, eta bi luzapen egiteko aukera dago, bakoitza urtebetekoa. Luzapena espresuki adierazi beharko da eta eskumena duen organoak erabakia hartu beharko du.

III.- 2023-06-27. Urtebeterako luzapen-kontratua sinatzen da, 2023-10-01etik 2024-09-30era arte.

IV.- 2024-04-29**.** Udalaren asmoa kontratua beste urte betez luzatzeari buruzko jakinarazpena Asociación Lorratz Elkarteari, 10 eguneko epean erantzuna eskatuz.

2024-05-17.- Asociación Lorratz Elkarteak jakinarazten du ados dagoela kontratua luzatzeko proposamenarekin.

V.- 2024-05-16. Gizarte Ongizate azpi saileko arduradun teknikoak kontratua luzatzearen aldeko proposamen txostena egin du.

OINARRI JURIDIKOAK

Beasaingo udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean eskuhartze zerbitzua, prozedura irekia eta erregulazio harmonizatuaren bidez kontratatzeko baldintza plegua.

PROPOSAMENA

Herritarrak batzordeak Udal Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio, azter dezan:

**Lehenik:** Urtebeterako eta egungo baldintzetan, prezioa barne, Asociación Lorratz Elkarteari kontratua luzatzea, Beasaingo udalerrian gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean eskuhartze zerbitzua emateko.

**Bigarren:** Luzapena 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era izango da; epe hau amaitu ondoren ez dago luzapen berria egiteko aukerarik..

**Hirugarren**: Asociación Lorratz Elkarteari erabaki honen berri ematea."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

- IGARTZAKO MONUMENTU-MULTZOKO JAUREGIA, ERROTA, BURDINOLA ETA ERMITA KUDEATZEA. BALDINTZA PLEGUAK ONARTZEA ETA DEIALDI BERRIA EGITEA. 2024LIKU0002

Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman da:

Ezagutzera eman dira pleguen ezaugarriak:

"*1.- Prozedura: irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.*
*2.- Izapidetzea: arrunta*
*3.- Lizitazio prezioa: 133.060,33 €, BEZ gabe.*
*4.- Egikaritze epea: Bi urte kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta urte beteko luzapena.*
*5.- Kaudimen ekonomiko, finantzarioa:*

*- Urteko negozio-bolumena, erabilgarri dauden azken hiru ekitaldietako ekitaldi onenari dagokiona, 150.000 €-koa edo handiagoa.*
*- Finantza-erakundeen kaudimen-txostena, enpresa sortu berria denean eta ezin duenean egiaztatu kontratuaren xedearen antzeko lanak egin dituela besteren kontura lanean aritu delako.*
*6.- Kaudimen teknikoa: Azken 3 urteetan antzeko zerbitzuak eman izanaren zerrenda, kontratua gauzatzeko atxikitako teknikariak edo unitate teknikoak enpresan integratu egon zein ez eta kontratu arduradunaren identifikazioa (bi kasutan eskatuko da Europako Erreferentzia Esparruko B2 gaitasun-maila, ahoz.*
*7.- Aurkezteko epea eta lekua: 2024-08-29 . Lizitazio elektronikoa.*
*8.- Adjudikazio irizpideak:*

*<u>Formula automatikoen bidez baloratzen ez diren irizpideak: kudeaketa proposamena (50 puntu)</u>*

*Ekintza plana eta plangintza (20 puntu), sare sozialak (15 puntu) eta espazioen sustapen komertzial erako eredua (15 puntu).*

*<u>Formula automatikoen bidez puntuatzeko irizpideak. (50 puntu)</u>*

*- Urteko eskaintza ekonomikoa. 25 puntu.*
*- Prezio unitarioei buruzko eskaintza ekonomikoa: 10 puntu*

- *Baldintza plegu teknikoa (3.2. atala), ez ohiko zerbitzuak: 5 puntu.*
- *Baldintza plegu teknikoa (3.3.2. atala), oholtza muntatzea eta desmuntatzea: 5 puntu.*

*- Langileen kualifikazioa: 15 puntu*

*Bisita gidatuek kontratua ondo gauzatzeari nabarmen eragin diezaioketela kontuan hartuta, zerbitzuari atxikitako pertsonetako batek gutxienez adierazitako kualifikazioren bat izatea baloratuko da, lehenengo bi kasuetan dagokion titulua aurkeztuz eta, hirugarrenean, emandako zerbitzuen ziurtagiriaren bidez.*

*- 7 puntu: hizkuntzak: euskara (C1 maila edo baliokidea),*
*- 4 puntu: hizkuntzak: ingelesa eta frantsesa (Hizkuntza Eskola Ofizialeko B2 maila edo baliokidea). Bakarrik hizkuntza horietako baten titulua aurkezten bada, 2 puntu emango zaizkio.*
*- 4 puntu: Esperientzia bisita gidatuak egiten.*

*9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.*
*10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzaileek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.*
*11.- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak:*
*- Lan-merkatuan emakumeek gehiago parte hartzea eta lan- eta familia-bizitza bateragarriak izan daitezen erraztea.*
*- Langabeziari aurre egitea, batez ere gazte, emakume eta luzaroko langabeenari.*
*- Lantokian prestakuntza jasotzen laguntzea.*
*- Kontratua hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren araubidearen mende dago.*
*Baldintza plegu teknikoan adierazten da zerbitzua zein baldintzetan ema behar den.*"

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek adostasuna azaldu dute proposamenarekiko lehenengo eta bigarrengo lizitazioko baldintzak, hoberuntz aldatu egin direla eta hori mesedegarria izango delako langileentzat eta bide batez zerbitzua jasoko duten erabiltzaileentzat.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- **LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK**:

a.- LOKALA EROSTEA: ORIAMENDI KALEA, 4 BEHEA. 2024IDBO0015

Lurralde batzordearen proposamenaren berri eman ondoren Alkateak, nahiz eta bere memorian azaldu lokala erosten dela Urbiberri gizarte-zentroaren osagarria izateko bien arteko gertutasuna dela eta, adierazi du asmoa litzakeela gaztelekurako ere erabiltzea egun eta ordu ezberdinetan.

Horren ondorioz proposamenean aipatzen duen erabilerari, udal zerbitzuetarako dependentzia gisa ere erabiltzeko aipamena egitea proposatu du, helburua guztiz itxi gabe geratu dadin, kontuan izanda arkitektoak baloratutako baino prezio baxuagoan erosiko dela eta ez duela ondare izaera izango eta horren ondorioz etekina ateratzeko ez dela izango baizik eta udal zerbitzuak eskaintzeko izango dela.

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), harridura azaldu du Urbiberri gizarte-zentroaren osagarria izateko erabiltzea, Erretiratuaren Batzordeak inolako kexarik aurkeztu ez duenean espazio-faltagatik.

Alkate andreak esan du erabilera hori proposatzen dela ez gabezia bat dagoelako baizik eta hobekuntza modura. Nahiz eta espazio aldetik Aranealdekoaren antzekoa izan Urbiberri zentroak, zorionez, erabilera intentsiboagoa du eta lokal hori erabiltzearekin jarduera anitzagoak eskaini daitezke.

Hasier Aguirre Elkoroberezibar jaunak (Besaingo EH Bildu) abstenitu egingo dela dio, nahiz eta lokala erosketarekin ados egon. Bere ustetan, ordea, Urbiberri zentroaren osagarria izatez gain gaztelekurako ere erabiltzearekin ez dator bat. Gaztelekuaren inguruan esaten du, aldez aurretik aztertu egin beharko litzatekeela zein behar dauden eta zer motako lokala behar den horretarako eta gaia landu ondoren proposatu zein den tokirik egokiena. Gobernu taldeak egiten duen planteamenduarekiko irizten du zerbait estali nahi dela.

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), zalantzak dituztela dio ez lokala erostearekin baizik eta erabilerarekin, nahiz eta beraien iritziz ere gazteentzako espazio baten beharra egon.

Alkateak aitortu du azterketa hori egiteke dagoela eta lokala egokia denez eta lanketa hori egin bitartean, agian, erabili daitekeela baita ere gaztelekurako, ordutegi ezberdinak ezarriz Urbiberriko erabiltzaileentzat eta gazteentzat.

Aritz Corsitto Agirre jaunak (Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde), begi onez ikusten du lokala erosteko aukera aprobetxatzea, kontuan izanda horretarako egin den eskaintza, baina erabileraren helburua aztertzearen kalterik gabe.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioa: 3 (Beasaingo EH Bildu, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Elkarrekin Podemos Ezker Anitza / IU-Alianza Verde).

Horren ondorioz, gehiengo soilarekin ondorengo erabakia hartu da:

"AURREKARIAK

1.- CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, SA enpresak Udalari egindako eskaintza, Beasaingo Oriamendi kaleko 4. zenbakian behean dagoen lokala 92.090,47 €ko prezioan saltzeko.

2.- Espedientea dokumentatu dela, bertan hauek egonik:

- Jabetza Erregistroko "*informazio-ohar soila*", aipatutako lokalarena.
- Arkitektoaren txostena, non adierazten den ondasunaren balioa, 114.894 €koa dela.
- Idazkariaren txostena, adieraziz ondasunak modu zuzenean eskuratzeko zein izapide jarraitu behar diren eta zein den erosketa onartzeko eskumena duen organoa.
- Alkatearen memoria justifikatuz, lokala modu zuzenean eskuratzeko beharra nahiz erosteko oportunitatea eta momentua.
- Kontuhartzailearen agiria erosteko kreditua egoteari buruzkoa.

OINARRI JURIDIKOAK

- Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua.
- Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea.
- Kode Zibila.

Lurralde batzordeak Tokiko Gobernu Batzordeari egiten dio ondorengo,

ERABAKI-PROPOSAMENA

**Lehenik**. Beasaingo Oriamendi kaleko 4. zenbakian behean dagoen lokala, CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, SA enpresaren jabetzakoa, **modu zuzenean eta kostu bidez erostea**. 3988 finka da, eta Tolosako Jabetza Erregistroan dago inskribatuta (838 liburukia, 61 liburua, 97 folioa). Lokalaren deskripzioa ondorengoa da:

*URBANA: Numero uno. Local destinado a Hogar del jubilado, situado en la planta baja de la casa de viviendas número cuatro de la calle Tercio de Oriamendi de la villa de Beasain. Tiene una superficie interior de ciento cuarenta y seis metros noventa y tres decímetros cuadrados. Consta de tres piezas, almacén y dos aseos. Tiene los mismos linderos de la casa a la que pertenece. Le corresponde la participación del veinte por ciento en el valor total del edificio y en derecho conjunto de copropiedad sobre los elementos comunes del mismo.*

**Bigarren**. Lokala **92.090,47 €ko prezioan** (BEZ gabe), erosten da.

Udalaren kontura izango dira salerosketatik ondorioztatzen diren gastu guztiak, udal gainbalioaren zerga izan ezik, hori saltzailearen ardura izango baita.

**Hirugarren**. Lokala erosten da ekimen publikoko jarduera batetara bideratzeko, hain zuzen ere, Urbiberri gizarte-zentroaren osagarria izateko, eta, beraz, erabilera publikorako eta baita ere udal zerbitzuetarako dependentzia gisa.

**Laugarren**. Erabaki honen berri saltzaileari jakinaraztea eta erabakiaren ziurtagiria Notaritzara helaraztea dagokion eskritura publikoa formalizatzeko eta ondoren Jabetza Erregistroan inskribatzeko.

b.- OBRA ZIURTAGIRIAK:

- BEASAINGO LOINAZ FUTBOL ZELAIKO TEILATUAN INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO BAT GAUZATZEARI BURUZKO OBREN LIKIDAZIOA. 2023PROB0009

Lurralde batzordeak proposatuta, aho batez onartu da, "Loinaz futbol zelaiko teilatuan instalazio fotovoltaiko bat jartzeko obrei *buruzko*" likidazioa, 2.663,31 €koa (BEZ barne)".

- BEASAINGO UDAL HILERRIKO NITXOAK ERABERRITZEKO OBREI BURUZKO 4. OBRA-ZIURTAGIRIA. 2023PROB0007

Lurralde batzordeak proposatuta, aho batez onartu da, "*Beasaingo hilerriko nitxoak berritzeari buruzko obren*" 4. obra-ziurtagiria, 16.640,42 €koa (BEZ barne)".

- BEASAINGO GIPUZKOA PLAZAN IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO BI PUNTU HORNITU ETA INSTALATZEARI BURUZKO 1. ZIURTAGIRIA. 2023PROB0015

Lurralde batzordeak proposatuta, aho batez onartu da, "*Beasaingo Gipuzkoa plazan ibilgailu elektrikoak kargatzeko bi puntu hornitu eta instalatzeari buruzko*" 1. obra-ziurtagiria, 31.775,30 €koa (BEZ barne).

- BEASAINGO HERRI ARGITERIKO EGUNGO KALEARGIAK DESMUNTATU, ETA LED KALEARGIAK HORNITU ETA MUNTATZEARI BURUZKO BIGARREN OBRA-ZIURTAGIRIA. 2023PROB0013

Lurralde batzordeak proposatuta, aho batez onartu da, "*Beasaingo herri argiteriko egungo kaleargiak desmuntatzea eta led kale argiak hornitu eta muntatzeari buruzko*" 2. obra-ziurtagiria, 75.897,32 €koa (BEZ barne).

- ANTZIZAR KIROLDEGIAN POWER-PISU LIBREKO GELA GAUZATZEKO OBREI BURUZKO 2. ZIURTAGIRIA. 2023PROB0012

Lurralde batzordeak proposatuta, aho batez onartu da, "Antzizar Kiroldegian power-pisu libreko gela gauzatzeko obrei *buruzko*" 2. obra-ziurtagiria, 80.835,41 €koa (BEZ barne).

## 4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko gairik ezean bilera arratsaldeko seietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.